

# Hego Euskal Herriko eredu energetiko eutsiezina

Analisia eta proposamenak



[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA



## AURKIBIDEA

1. Hego Euskal Herriko energia eredia.....	3
2. ELAren proposamenak bidezko trantsizio energetikorako.....	9

Gaur egun bizi dugun egoera aldakor eta kezagarria ez da Europan bizi den gerra egoerari lotuta soilik garatu. Energiaren arazoa estrukturala da, Ukrainako gerra baino askoz lehenago ari gara sufritzen.



Gerrak herrialde batzuen baliabide naturalekiko dugun dependentzia bistaratu du, baina arazoa aspalditik dator. Dugun eredu energetikoa kanpotik ekartzen ditugun energia fosiletan dago oinarritua, eta hau da konpondu beharreko arazoa.

Dependentzia bikoitza dugu, kanpotik ekarritako baliabideena eta energia fosilena. Txosten honetan ikus daiteke dugun menpekotasuna nolakoa den eta azken urteetan trantsizioaren inguruko aurrerapausuen propaganda ez dela errealitateak erakusten duena. Azken bi hamarkadetan ez da inongo aurrerapausurik izan trantsizio energetikoan eta honek zaurgarriagoak egin gaitu egun bizitzen ari garen krisi globalaren aurrean.

### 1. HEGO EUSKAL HERRIKO ENERGIA EREDUA

Hego Euskal Herriko eredu energetikoa nolakoa den ikusteko, kontsumitzen dugun energia zein iturri erabilita sortu den aztertu behar da lehenik.


EAEren kasuan, %78,19 energia fosilekin sortu da, energia berriztagarriekin ordea %9,78 ekoizi da. %11,68 kanpotik inportatu behar izan den elektrizitatea da. Datu hauek garbi erkusten dute EAEk duen menpekotasun bikoitza. Alde batetik Energia fosilekiko dugun menpekotasuna, eta bestetik kanpotik ekarritako energiarekiko duguna, izan energia fosil bezala edo izan elektrizitate bezala.




Nafarroaren kasuan, egoera hobean daude energia berriztagarriak. Sortutako energiaren %21,82 baita iturri hauetatik eratorria. Hala ere, energia fosilen erabilera energia sorkuntzan handiegia da oraindik. Nafarroa ere energia fosilen eta kanpotik ekarritako energiaren menpeko da.

Azken urteetan energia sortzeko erabilitako iturriak batez ere petrolio eta gas naturala izan dira, bai EAEn eta baita Nafarroan ere.

EAEn, azken hamarkan gora beherak izan dituzten arren, energia sortzeko iturri erabilienak izan dira, berriztagarrietatik oso urrun. Honek adierazten du trantsizio energetikoaren beharra. Berriztagarriei loturiko energia sorkuntzak ez du aurrerapausorik erakutsi azken urteetan, propagandak diotenaren kontra, ez dago trantsizio energetikoaren arrastorik.




Nafarroak mende hasieran izan zuen berriztagarrien hazkundera garrantzitsua izan zen, baina azken hamarkadan ez da berriztagarriekin energia sortzeko ahalmena hazi, hazkundera aspaldi geratu zen.




Zuzenean kontsumitzen dugun energia motari so eginez, eredia beretsua da.


EAEen gehien kontsumitzen den energia fosila da, %66,36. Berriztagarriak %8,54a soilik dira. Datu hauen artean azpimarratzekoa da energia elektrikoaren kontsumoa, %24,81a baita. Deskarbonizazioaren bidean sistema energetikoaren elektrifikazioa da lortu beharrekoa besteak beste, eta datu honek EAEen deskarbonizazioaren bidean potentzialitatea dagoela adierazten du.




Nafarroan aldiz, berriztagarriek pisu handia dute jada, %28,73, baina oraindik ere asko hobetu beharra dago deskarbonizazioaren bidean.




Energiaren kontsumoa sektoreka aztertuz gero, EAE eta Nafarroako ereduak berdinak dira. Kontsumo handiena garraio sektoreak egiten du, industriak jarraitzen diolarik. Bi sektore hauek dira kontsumoa gutxitu eta elektrifikazioa bultzatu behar dutenak. Garraioaren kasuan energia fosilean oinarritzen baita guztiz, eta industrian ere energia fosila erabiltzen duten hainbat sektore eraldatu behar dira.




Nafarroaren kasuan aipatzekoa da nekazaritzak duen pisua. Eredu industrialia da gailentzen dena eta horregatik energia kontsumo adierazgarria du. Eredu industrial batetik eredu agroekologikorako pausuak deskarbonizazioaren bidean aurrera pausu handia suposatuko luke.



Aipatutako sektoreek azken urteetan izan duten bilakaera ikusita, aipatzekoa da industria eta garraioan eman direla aldaketak. Industriaren energia kontsumoaren beherako joera aipatu behar da. Garraioaren kasuan ordea, 2019 arteko goranzko joera da aipagarriena. 2020an pandemiaren ondorioz bai EAEn eta baita Nafarroan, eta mundu osoan, garraioak geldildi handia izan zuen eta grafikoetan beherakada ikusten da. Hala ere, datu hori ez da sektorearen bilakaeraren adierazgarri, 2021ean garraioak iharduera arrunta berreskuratu baitzuen.



Nafarroan aipatzeko da nekazaritza sektorean beherakada bat ikus daitekeela. Garraioaren kasuan ez bezala, 2020an pandemiaren eraginez gorakada izan zuen ordea. Bizitzarako ezinbesteko sektoreen artean dago elikadura, pandemian argi geratu zen, horregatik iharduerak gorakada izan zuen eta ondorioz sektorearen energia kontsumoak ere bai.





## **2. ELAren PROPOSAMENAK BIDEZKO TRANTSIZIO ENERGETIKORAKO**

Hego Euskal Herriko energia ereduak aztertuta, baieztatu dezakegu menpekotasun energetikoa dugula beste herrialde batzuekiko eta energia fosilekiko, eta biei bilatu behar zaie irtenbidea. Inflazioa geldiarazteko neurriak soilik ez dute ezertarako balio, arazoak hor jarraituko du eta egoera larriagoetara eramango gaitu bidezko trantsizio energetiko bat berehala martxan jartzen ez bada.

Bidezko trantsizio energetikoa gauzatzeko egungo eredu energetikoa aldatu behar da. Eredu honen ezaugarri nagusiak energia fosilen gehiegizko pisua eta energia kontsumo izugarria dira. Trantsizioa energetikoaren 3 ardatz nagusiak kontsumo energetikoa murriztea, iturri berriztagarrietan oinarritzea eta sistema energetikoaren elektrifikazioa izan behar dira.

Sarritan, trantsizio energetikorako berriztagarriak ekoiztea soluzio bakar bezala aipatzen da, eta enpresa elektrikoek beraien megainstalazioak zurrizteko erabiltzen dute argudio hau gainera. Bultzatu behar den eredu energetikoa azpiegitura handietatik urrundu eta diseinu deszentralizatu batean oinarritu behar da. Autokontsumoak gero eta indar handiagoa izan behar du, beraz askoz gehiago bultzatu behar da.

Baina energia berriztagarriak ez dira energia fosil guztiarentzat alternatiba. Energia fosilak elektrizitatearen sorkuntzarako erabiltzen direnean, berriztagarriek ordezkatu ditzakete hein handi batean. Baina denak ez du elektrizitatearekin funtzionatzen. Horregatik sektore bakoitzerako proposamen ezberdinak egiten ditu ELAk.

Pertsonen eta merkantzien garraioan erabiltzen den energia fosila berriztagarriengatik ordezkatzeko, milioika ibilgailu elektriko beharko lirateke, eta hau materialki ezinezkoa bihurtzen ari da. Teknologia guzti hauek garatzeko material kopururik ez baita egongo. Etorkizuneko garraioa kolektiboa, publikoa eta elektrikoa izan beharko da, baina dugun gehiegizko mugikortasuna ere asko murriztu beharko da.

Sektore industrialei dagokienez, erabiltzen den gas naturala eta beste erregai batzuk berriztagarriekin ordezkatzea ez da beti posible izango. Horregatik, industriaren trantsizio ekologiko bat egitea beharrezkoa izango da, zer eta nola ekoiztu birpentsatu beharko dute enpresa askok ekonomikoki eta ingurumen ikuspuntutik bideragarriak izaten jarraitu nahi badute. Beharrezkoa izango da beraz ekoizpen ereduaren aldaketa sakona, ekonomia zirkularrean oinarrituko dena, baina baita sistemaren eraldaketa sozial eta ekologikoa bermatuko duena ere. Gertuko ekonomia lehenetsi eta birkokatuko duena. Baina horrek globalizazioaren eta azpiegitura handien mantra haustea suposatzen du. Etorkizun hurbilean etorriko zaizkigun energiaren eta materialen faltari aurre egiteko, gertuko ekonomia batean oinarritzeak erresilienteago egiten gaitu. Jasagarriak diren hainbat sektore ere garatu daitezke: energia berriztagarriak, eraikinen birgaitzea, garraio publikoa, elikadura burujabetza, edo hondakinen kudeaketa iraunkorra esaterako. Sektore batzuetan enplegua galduko da,

baina beste hauetan enplegua sortzeko neurriak hartu behar dira. Industriak trantsizio ekologiko bat izan behar du, baina justua eta demokratikoa, inor kanpoan utziko ez duena.

Ez dugu langileok ordainduko aurretik beste batzuk egin nahi izan ez dutena. Trantsizioa justua izateko, gizartearen onurarako neurriak ere behar dira. Beharrezkoak dira aberastasunaren eta lanaren banaketa posible egingo duten neurriak hartzea, eta prozesu honetan kaltetuak izango diren pertsona eta herriei erantzuna emango dieten plangintzak eta baliabide publikoak bideratzea. Horrela ez bada, bidezko trantsizioa ez da posible izango.





[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
**EUSKAL SINDIKATUA**